

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ LATXE ALDIZKARIA

Gabonetako ale berezia, kalean

Latxe aldizkariaren bosgarren alea kalean da; berezia da hau, Gabon girokoa. Bazkideek ohiko puntuetan jaso dezakete, eta ez direnek, erosteko aukera daukate, Dorronsoro edo Antziola okindegietan eta Ikusi Makusi jostailu dendan, 3 eurotan. ||

■ GABONAK



Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kale-buelta egin zuten ostiralean.



Txistorra banatu zuten Florida-Etxeberrin, atzo; balta gaztainak ere!

Kantuz, Portu eta Lizeaga, erreleboa hartuta

Atzo Ozenki, Umore Ona eta Musika Banda bezala, Kantuz abesbatza entzun ahal izango da gaur, errondan, 12:00etan aterata. Eta txistorra postuak ere izango dira gaur, Lizeagan eta Portu auzoan.

AZKEN egunetan bezala, gaur ere Gabon giroko hainbat ekitaldi izango dira, Gabon gauaren bezpera eguna dela agerian jarritz.

Batetik, txistorra probatu ezinik geratu denak, beste bi aukera izango ditu gaur: Portu auzoan, 12:00etatik aurrera, eta Lizeaga auzoan, Urumea ikastolako patioan, 12:30etatik aurrera. Horrez gain, batean zein bestean Gabonetako

saskia zozketatuko da, eta Lizeagan, bestalde, saskia oparituko zaie Gabonetako balkoi, fatxada edo leiho apainena lehiaketako irabazleei.

Hori guztiaz gain, eguerdiko 12:00etan Milagrosatik kalera aterako da Kantuz abesbatza, kale-buelta egiteko.

Bihar, berriz, Olentzerorekin batera aterako dira hainbat talde, kalera, errondan. ||



Karabelen Santo Tomas egunean izan zen txistorra probatzeko aukera.

■ ERRUGBIA

Aldea haunditzera, Madrilera

Cisnerosen kontra jokatu du gaur Ohorezko Mailako taldeak, 12:00etan, areioaren etxean. Hernanik, Bartzelonaren kontra lortutako puntuei esker, hiru puntuko aldea ateratzen dio Cisnerosi, eta alde hori haunditzeak asko lagunduko lioke, gaurkoan. ||

■ SAN JOAN KONPARTSA

7181, sariduna

Santo Tomas eguneko itsuen zozketako zenbaki irabazlearekin bat datorrena da San Joan Konpartsako erriña irabazlea: 7181 zenbakia. Urtarrilaren 21 baino lehen deitu behar du irabazleak 695 753 138 zenbakira. ||

■ HERNANI ERROTZEN

'Oroimen lekuak' aurkeztu eta saria banatu, ostegunean

Hernani Errotzenek eta Nabarralde Fundazioak elkarlanean Memoria lekuak dokumentala egin dute, eta ostegunean, hilaren 27an aurkeztuko dute, 19:30etan Biterin. Era berean, Ezagutu Hernani lehiaketan parte hartu zutenei saria ere emango zaie Biterin bertan, 18:00etatik 20:30etara: *Beloagako gaztelua*. Memoriaren behatokia dokumentala. Jaso ezin duenak herriaerrotzen@gmail.com helbidera idatzi dezake. ||

■ EUSKARA ARI DU

Erronkak aurrera, azken festaren ondoren

Eguerdiko 12:30etan Biterin elkartzeko deia egin die Euskara Ari Du elkarteak urtean zehar Baietz Hernanik! erronkan parte hartutako 1.118 erronkalariei eta herritarrei. Ikuskizun berezia egingo da.

USTE baino azkarrago pasa da urtea, eta Euskara Ari Du elkarteak *Baietz Hernanik!* erronkari bukaera emateko festa antolatu du gaur, 12:30etan Biterin. Dena den, egitasmoak aurrera segiko duela iragarri du. Baina

gaur, eskerrak emango zaizkie urte osoan zehar izena emandako 1.118 erronkalariei eta izenik eman gabe ere parte hartu duten herritarrei; «pozik gaude, mezua hernaniarren-gana iritsi delako».

Magia, musika eta hamaiketakoa

Horrela, gaurko festa Miren Gojenolak zuzenduko du, eta Irati Sarasua eta Aitor Altuna izango ditu bidelagun aurkezle lanetan. Horrez gain, gure

Zirkuko Asier Kidam magoa, Kilimak musika taldea eta Zigor DZ disko jartzaileak hartuko dute parte bertan.

Bukatzeke, hamaiketakoa ere jarriko da, eta herritar guztiak daude gonbidatuta. ||

■ CD HERNANI

842, irabazlea

Santo Tomas azokan erriñak saldu zituen CD Hernanik, eta 842 zenbakia izan da saritua. Irabazleak 675 70 28 11 zenbakira deitu behar du. ||



☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☎ / **Egunez:** **Aguado** ASTIGARRAGA Nagusia, 21 **943 550327** / **Gauetz:** **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

HAUR PARKE SOLIDARIOA

Siriara laguntza bidaltzeko, parkea

Abenduaren 29an, egun osoan, rokodromoa, tailerrak, jolasak, txokolate eta bizkotxoak izango dira aukeran, 3 eurotan, kiroldegiko frontoian.

PASAPORTES para Siria elkar-teak antolatuta, PIN solidarioa jarriko da kiroldegiko frontoian, abenduaren 29an.

Sarrerak 3 euro balioko ditu, eta aurretik ere erosi ahal izango da. Bildutako dirua Lesbosen haur errefuxiatuentzako izango da.

«Helburua da hemengo haurrek laguntza ematea»

Elkar-teak jakinarazi du haur parkera sartzeko sarreraren truke

ke lortutako dirua Lesbosen haur errefuxiatuei.

Bildutako dirua nahikoa ez bada, jakinarazi dute beste elkarte bati emango diotela, lan hori bera egin dezaten. Bestela, errefuxiatuen mesedetan lanean ari diren elkarte bati emango diote.

Haur parke baten bidez dirua biltzeko ere helburu argi bat dauka: «helburua da

hemengo haurrek laguntza ematea Lesbosen dauden haur errefuxiatuei».

Sarrerak, Kiden

Parkea goiz eta arratsalde jarriko da, 10:30-13:30 eta 16:00-19:30. Zirkuitoak, puzgariak, jolasak, rokodromoa, txokolatada, Denontzat gimnasioak antolatutako ekintzak... izango dira.

Sarrerak aurretik erosi daitezke, Kide kafetegian. ||



Andueza (aurrean), Ricardo Crespo (eskubian) eta hainbat sozialista hernaniarrekin.

HERNANIKO PSE-EE

«Egonkortasunerako bermea», alderdi sozialista

Eneko Andueza, Gipuzkoako sozialisten idazkari nagusia Hernanin izan zen atzo, Ricardo Crespo alkategaia eta PSE-EEko hainbat kiderekin. Bertan, Pedro Sanchez Espainiako presidentek Kataluniara egindako bisitaz aritu zen, adierazteko «ekintzekin, eta ez esan hutsekin, arazoak konpontzeko dagoela erakusten» ari dela. Izan ere, azpimarratu zuen «historikoa» izan dela bertan bildutako Ministro Kontseiluak onartutako lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera. Era berean, sozialistak «Euskadin ere egonkortasunerako bermea» direla nabarmendu zuen, eta Euskobarometroaren emaitzen arabera, «gizarteak baloratu egiten» duela. Huteskundeetarako falta den arren, ondo ari direla argitu zuen. ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Hernaniarren Oroimen Historikoa 2018

Nik ere, Oroimen Historikoa 2018 Migranteak-deiturikoaren harira, beste memoria bat berreskuratu nahiko nuke, beste ikuspuntu batetik: berta-koena.

Bertakoak, pasa zituztenak pasa eta gero, harriturik ikusi zuten nola zetozten tren gelotik ehundaka espainiar beren egurrezko maletekin.

Hernaniarrek, bizi behar izan zuten nola sabotatzen zituzten txistularien bandaren saioak. Zenbat hernaniarrek

aditu ote zuten «Hable en cristiano!», mesprexuz?... askok. «Azken etorriberrri gosepasatuak halaxe esaten zigun! Eta gu, ixildu egin behar!» gogoratu arazten dit batek. Aniztasunaren aberastasuna, noski!

Oroitzen dira baita ere, nola inguruko enpresa haundiak, bertan bilatu ordez, askotan nola joaten ziren kanpora, Espainiara, langile berriak ekartzera.

Etorkin hauen artean sentibiltatedun asko baziren, gerora integratu edota gutxienez errespetua erakutsi dutenak bertakoekiko. Baina hazkunde

demografiko honek suposatu zuena, kultura/herri baten tragedia izan da.

Amaitzeko, esan nahiko nuke, herrialde batean batzuk atzerrira joateak ez duela herrialde osoa emigrante bihurtzen. «Los vascos, un pueblo emigrante» esaldian desitxuraketa intentzionatu bat ikusten dut (esan liteke hori irakurrira, Euskal Herria beste etnia nomada horietako bat izan dela, eta hain xuxen Herri honek ezaugarritzat duena da, milaka urte damazkila leku berean).

Maddi Etxeberria Galbete

EREÑOTZU EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA

Aurreneko kanporaketa gaur, Irrintzi tabernan

Euskal Herriko Mus Txapelketan parte hartu nahi dutenek 16:00etan daukate zita.

URTARRILAREN 31ra jokatuko dira herriz herri Euskal Herriko XI. Mus Txapelketako aurreneko kanporaketak, eta gaurkoan, Ereñotzuren txanda izango da. Jokatu nahi duten guztiek 16:00etan daukate zita, Irrintzin.

Ardoa eta Fagollaga, sari

Parte hartzeagatik bakarrik, ardo botila eraman ahal izango da gaur etxera, eta era

berean, irabazleek Fagollaga jatetxean otordu bat ere lortuko dute.

Izenematea, bikoteko, 20 eurokoa da.

Lehia, martxora arte

Txapelketako finala martxoaren 16an jokatu da, Lizarran (Nafarroa).

Horren aurretik, herrialdeko kanporaketak jokatu dira otsailaren 29an. ||

TXIRRINDULARITZA

Lizentziak Kiden, ostegunean

2019rako txirrindularitza lizentziak egingo dira Kide kafetegian, hilaren 27an, 19:30etatik 20:30etara. Aurtengo kuota izango da, 130 euro lizentziarako eta beste 10 kluberako. Ahal dela ordainketaren erreziboa eramateko eskatu dute. Kutxabankeko kontu korronte honetan ordaindu behar da: ES76 2095 5041 11 1073726274. ||

ERRESIDENTZIAK GREBAN

Bihartik greban, zaharren egoitzan

ELA sindikatuak deitutako grebarekin bat egin dute Hernaniko zaharren egoitzako eguneko zentroko langileek, «patronala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarrera salatuz, negoziaketan inolako urratsik ematen ez» dutelako. Bihartik abenduaren 31ra arte egingo dute greba, eta eskualdeko kontzentrazioekin egingo dute bat, hilaren 28an Villabonan, 11:30etan, eta 30ean Ordizian, ordu berean. ||

ERREMONTEA


Finalerako paserik gabe, Barrenetxea IV

Lau tantoko aldearekin irabazi beharra zuen atzo Barrenetxea IV hernaniarrak, Ansa Ilrekin batera, Binakako Txapelketako finalera pasa ahal izateko, baina Uterga eta Azpirozek kendu zieten aukera, 29 eta 40 irabazita. Joanekoan ere 37-40 irabazi zieten. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

IV. URTEURRENA
Ma Dolores Aguirrezabala Arizabalo
2014ko abenduaren 23an hil zen, 81 urterekin
-Goian Bego-
Zure oroimena beti izango da gure bihotzean.



ZURE FAMILIAK
Hernanin, 2018ko abenduaren 23an

IRAGARKI MERKEAK

Esperientziadun andreak lan egingo luke adinekoak zaindu edota lagun egiten eta garbitasunean. Orduetgia: 11:30-17:00. Deitu: 654 122 548

LOGIKALINE enpresak BOST TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Gazieleria eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06

Itziarroyo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)